

432 zenbakia, 2000ko abenduaren 1a
JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

Berrigarra



Orduko jostunak

Luis Agirre eta Jabier Mujikarekin berriketan



CITROËN

ION AUTOAK

Amillaga 36, Bergara
Tf. 943 76 47 49 / 73



Citroën **Xsara**
berria

500.000

pezetarainoko deskontua

HARTU ARGIA ASTERO



- Urtebetean 46 ale
- Euskal Kulturaren Urtekaria doan
- Orain harpidetuz gero, gure azokako opari bat zuretzat

- Zure helbidean jasoko duzu merkeago
- Gure azokako produktuetan deskontu bereziak
- Zozketa eta eskaintza berezietan parte hartzeko aukera

KONPROMISOAREN KOLOREAK DITUGU

IKASLEENTZAT!

% 25eko BEHERAPENA
(ikasle txartelaren kopia bidaliz)

URTEBETEKO HARPIDETZA (BEZa barne)

- Hego Euskal Herria: 16.400 pzta / 98,57 euro
- Ipar Euskal Herria: 780 libera / 118,92 euro
- Espainia: 16.400 pzta / 98,57euro
- Beste Atzerriak: 21.100 pzta / 126,81 euro
- Airez: 33.000 pzta / 198,33 euro

izena:1. deitura:2. deitura:
 I.A./I.F.K.: Helbidea:
 posta kodea:Herria:Tel./Faxa: e-posta:

Ordainketa mota (markatu x batez): Bankuz Transferentziaz ARGIAren kontura
 Bankuz ordaintzekoak betetzeko soilik)
 banku edo aurrezki kutxa:Titularra:
 titularren telefonoaTitularren helbidea:
 identitatea Bulegoa K.D. Kontu Zenbakia

DATA:

SINADURA:



Behi eroak?

Noelia Aldai / Nekazal Industrietako Ingeniaria

Egunotan albistegietan hain entzuna izan den "behi eroen" gaitza (*BSE: Encefalopatia Espongiforme Bovina*) dela eta, kontsumitzaileok nahiko nahastuta gabiltzala uste dut. Ezta ez, bere horretan, begiak itxi eta desagertuko zaigun gaitza esku artean daukaguna.

Gaitz hau 1985. urtean agertu zen lehen aldiz Erresuma Batuan eta ondoren beste herrialde batzuetan ere detektatu da: Irlandan, Portugalen, Suitzan, Italian, Alemanian eta Frantzian esate baterako.

Erresuma Batuan ardiek eta behiek larreak aspaldidanik konpartitu dituzten arren ez zen sekula ezer gertatu nahiz eta ardietan *scrapie*-aren prebalentzia handia izan. 1981-1982 urte artean, ordea, Ingalaterran eman zen petrolio krisia dela eta, ekoizpen kostuak gutxitzeko asmoz pentsu-industriek beraien prozesuetan aldaketak egin zituzten. Animalia jatorrizko hondakinak prozesatzeko orduan ez zen behar bes-

teko bero tratamendua aplikatu eta gaitz honen eragileak diren prioiak ez ziren inaktibatu. Ondorioz, gaitza pentsu hauek jaten zituzten behietara transmititu da. Eta hau nahikoa ez baltitz, pertsonetan ere azaldu dira kasu batzuk, Creutzfeldt-Jacob gaitzaren bariante bat bezala garatuak. Hala ere, adituen esanetan, okela gorria janda ez dago kutsatzeko arrazoirik, sistema nerbioarekin zerikusia duten ehunak irensten ez ditugun bitartean.

Gaitzaren istorioa laburki esplikatu ondoren, kontsumitzaileari lasai egote-

"Kontsumitzaileari lasai egoteko dei egiten diot, denbora baino lehen ez erotzeko. Euskal Herrian baditugu lasai egoteko nahikoa arrazoi"

ko dei egiten diot, denbora baino lehen ez erotzeko. Euskal Herrian baditugu lasai egoteko nahikoa arrazoi; alde batetik, ez dagoelako animaliei beraien hondakinez eginiko pentsuak emateko ohiturarik, eta, bestalde, badaukagulako hemengoa den euskal okela, Kalitatezko Eusko Labelaren identifikazio eta ziurtagiria duena. Eta zergatik azpimarratzen dut Euskal Okela? Arrazoa sinplea da: txahala hemen jaiotakoa eta hazitakoa delako, alegia. Txahala hemen hazitakoa izatea bakarrik ez baita gaitzari aurre egiteko nahikoa. Eta zergatik? Ba gaitz honen transmisioaren %10 bertikala delako, hau da, behitik txahalera transmititzen delako; eta momentu honetan txahalen jatorria kontrolatzen saiatzen dena Eusko Label erakundea delako; hemengo baserritarren laguntzaz, noski. Beraz, aurrez gehiegi pentsatu gabe, behi-haragia eskatzeari utzi beharrean, zergatik ez dugu beldurrik gabe informazioa eta kalitatea eskatzen?<

barruan



Aitor Aranzabal

Batasuna Batzordeko kidea

"Batasuna Batzordeak erakunde ezkertiar eta nazionala sortzea du helburu"

6.



Maite Gomez

Postarixa

"Egixa da postarixok bi bider deitzen dogula: bi bider, eta baita gehixagotan be"

13.



Roberto Zurro

Korrikalaria

"Zure indarren kontrako proba da maratoia eta buruarekin ere egin behar da korrika"

17.

AGENDA ETA ZERBITZUAK

hi, gazte!



BEKAK

Graduatu ondoko prestakuntzarako 14 beka. Lehendakaritza Ministerioa. Unibertsitateko goi-mailako titulua, eta gutxienez dokumentazioko 200 ordu. Epea: abenduak 2.

Biomedikuntzako ikerketa bekak. Raul Gonzalez-Salas Fundazioa. Epea: abenduak 16.

JARDUERAK EHGAM.

Hiesaren aurkako borrokarekiko elkartzasun-jardunaldiak. Azaroaren 20tik abenduaren 2ra.

IKASTAROAK

Argiztapen Eszenikoa. Erretereriako Kultura Etxea. Argiztapen Eszenikoari buruzko kurtsoa. Ikuskizunetako argiztapen-teknikarien prestakuntza: antzerkia, musika, zinema eta telebista. Teoria eta praktika. Epea: Abenduak 5

LEHIAKETAK

Amodiozko Gutunen IX. Berrigara Lehiaketa. Jardun Elkarte. 1986. urtean baino lehenago jaiotako pertsonak. Gehienez 2 orrialdeko gutuna. Euskaraz. Epea: urtarrilak 8.

Artista Berrien XXXIX. Lehiaketa. Gipuzko Foru Aldundia eta Kutxa. 18 eta 30 urte bitarteko artistak, Gipuzkoan jaiotakoak edo bost urtez gutxienez egoitza Gipuzkoan dutenak. Arte plastiko eta ikus-entzunezkoen baitako edozein arlo. Epea: abenduak 15.

LAN ESKAINTZAK

Hainbat lan eskaintza. Basauriko Udala. Programatzailea, administrari laguntzailea, emakumeen berdintasunerako teknikaria, administrazio orokorreko teknikaria, euskara teknikaria, enpleguo teknikaria, ikasketak gelako arduraduna, informatikan erdi mailako teknikaria, agente exekututzailea, marrazkitzailea, udaltzaina, igeltsero laguntzailea, ehorzle laguntzailea eta kontratazio eta kontrolako lanpostua. Epea: abenduak 5.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak
Telefona: 943 77 91 57
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net
Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00
Larunbata: 09:30-13:30

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuten ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Baibenka
Balantzaka.

— Ondoeza ein
dda baibenka
aillegau nitzan
etxera.



GORKA ORTEGA

hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Azaroak 22, eguaztena	16 °C	7 °C	23,7 l/m ²
Azaroak 23, eguena	13 °C	9 °C	8,5 l/m ²
Azaroak 24, eguakitza	9 °C	6 °C	4,9 l/m ²
Azaroak 25, zapatua	17 °C	8 °C	8,4 l/m ²
Azaroak 26, domeka	16 °C	10 °C	7,1 l/m ²
Azaroak 27, astelehena	20 °C	10 °C	- l/m ²
Azaroak 28, martitzena	21 °C	8 °C	- l/m ²
Azaroak 29, eguaztena	18 °C	16 °C	3,8 l/m ²

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:00.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

Basalgo

Domekak: 13:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

txandak

FARMAZIAK

EGUAKITZA 1:

ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

ZAPATUA 2:

MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

DOMEKA 3:

MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

ASTELEHENA 4:

CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

MARTITZENA 5:

PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

EGUAZTENA 6:

GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

EGUENA 7:

ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

EGUAKITZA 8:

MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

ZAPATUA 9:

CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

DOMEKA 10:

CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

ASTELEHENA 11:

PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

MARTITZENA 12:

GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

EGUAZTENA 13:

ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

EGUENA 14:

MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

OGIA

DOMEKA 3 Konde

EGUAZTENA 6 Mizpildi

EGUAKITZA 8 Ogizun

DOMEKA 10 Konde

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46

Ertzaintza 943 76 53 40

Osasun Etxea 943 76 24 40

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

GARRAIOAK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako udaletxea 943 76 62 46

Kultur Etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kiroldegia 943 76 56 41

Mizpirualde Egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Idolaz 943 76 65 08

Jubilatu Etxea. Bergara 943 76 21 40

Antzuolako jubilatu elk. 943 76 62 71

deiak

zorionak!

■ **Odol ateratzea** eguaztenean, hilak 29, 18:30ean Seminarioko lokalean. Odol emaleei bertara joateko dei egiten zaie.

■ **Gazte lokalaren** aldeko mugimenduak eguakitzero, 19:00etan, Gaztetxean egiten den bileran parte hartzeko dei egiten die herriko gazteei.

■ **Bergarako Batzokiaren 20. urteurrena** ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, domekan, abenduak 3, 11:30ean hildako alderdikideen oroimenezko meza Monja Zaharretan. Jarraian, Ikurriña jasotzea Batzokian eta 13:00etan Xabier Arzalluzen ekitaldia. 14:30ean bazkaria izango da Batzokian. Izen-ematea bertan. Era berean, abenduaren 2tik 10era bitartean "Euskal aber-tzaletasunaren hasieraren ibilbidea garaiko egunkariaren ikuspuntutik" erakusketa zabalik izango da Batzokian.

■ **Trasteak biltzeko kamioia** hileko lehen eta hirugarren eguaztenetan pasatzen da. Beraz, trasteak goizeko 8ak baino lehen atera behar dira zabor guneetara. Erdigunetik kanpoko auzokoen, bezperan eguerdiko ordubata baino lehen abisua utzi behar dute Udaltzaingoa (943 77 91 06) kamioia bertatik pasatzeko.

■ **Egoitza alargunen elkartearen** urteroko bazkaria abenduaren 8an Antxonin. Izen-ematea elkartearen bertan.

OHARRA
Datorren eguakitzean, hilak 8, ez da Berrigararik banatuko. Hurrengo, 433. zenbakia, abenduaren 15ean argitaratuko da.

Berrigara.



Erika Fernandez
1ean 19 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



Mireia Arana
5ean 4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Julen.



Beñat
1ean 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Luziano Larrañaga
8an 86 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Iosu Gomez
4an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Nerea Etxezarreta
6an 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Andoni.



Inmaculada Garcia
11n urtebetetzea.
Urte askotarako!
Isa eta familiakoak.



Paulo Garitano
13an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Nerea Agirrezabal
9an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Leire Igarza
2an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ander Usaola
2an 13 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Maitane.



Usue Aspiaz
2an 5 urte.
Urte askotarako!
Amatxi eta etxekoak.



Unai Martinez
1ean 9 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Ariane.



Euxebio Martinez
6an 44 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Maider Azkarate
4an 19 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Alazne Roman
9an 7 urte.
Urte askotarako!
Amagoia, Jokin, Asier eta etxekoak.



Iker Murillo
2an 14 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak eta, batez ere...



Naiara Marcos
1ean 13 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak eta, batez ere...



Jon Marzo
14an 5 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Nerea.



Uxue Murgiondo
4an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



Ibai Sanz
1ean urtebete.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Irati.



Iñigo Astiazaran
2an 4 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Alex.



Lander Bretaña
13an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Naroa Ugarte
3an urtebete.
Urte askotarako!
Aitaxo eta amatxo.



Aritz Arrillaga
4an 8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



Jon Arrillaga
13an 11 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.

Zubiaren osteko alean,
abenduaren 15etik 21era
bitartekoan zorion agurrak
argitaratuko ditugu.

KONDE P A N A D E R O K U A

Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

ARRANO

Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

GOXO-TOKI

Inda 3. Tf. 943 76 12 35
Matxiategi 34. Tf. 943 76 23 37
BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

Batasuna prozesua abian da. Eztabaida prozesu sakon eta luzea izango da; urtebete inguru iraungo du. Abertzale eta ezkertiar sentitzen den jendea bildu du bere baitan helburu amankomunarekin.

G. Zer da Batasuna prozesua?

E. Maiatzean hasi zen eta urtebete inguru iraungo duen eztabaida prozesua.

G. Zer du helburu?

E. Ezkertiarren batasuna lortzea; izan ere, Euskal Herrian abertzale eta ezkertiar sentitzen den jendea nahiko sakabanatuta dago. Prozesuak, jende hori guztia erakunde berri batean biltzea du helburu; erakunde ezkertiar eta nazional batean, ipar eta hegoaldea bere baitan bilduko dituen. Orain arte, Herri Batasunak, Zutikiek zein beste hainbat erakunde eta talde ezkertiarrek, ez dute izaera nazionalik izan. Beti mugatu dira Hego Euskal Herrira.

Bestalde, talde guztiak helburu estrategiko berberen inguruan bildu gara: independentzia eta sozialismoa, alde batera utzita norbere iritzia.

G. Prozesu luzea da.

E. Bai, eztabaida sakona delako eta lasai egitekoa. Izan ere, zer nola funtzionatuko duen erabaki behar da, eta baita, beste gauza batzuren artean, gaur egun puri purian dauden eztabaida guztiak mahai gaineratu ere, lurraldetasuna eta borroka moldeak esaterako.

Horixe da, beraz, Batasuna prozesuan jarraitzen dugun helburua. Maiatzean hasi ginen eta datorren urteko maiatza edo apirila aldera amaituko da. Dena den, epea nahikoa malgua da.


G. Zergatik prozesua une honetan?

E. Momentu honetan bi-

AITOR ARANZABAL

Bergarako Batasuna batzordeko kidea

“Batasunak erakunde ezkertiar eta nazionala sortzea du helburu”



Aitor Aranzabal Bergarako Batasuna batzordeko kideetako bat da.

zi dugun marko juridiko-politikoak agortuta dagoelako. Eta ez da guk bakarrik diogun gauza bat; ezkertiarrek ez diren beste hainbat sektorek ere horrela uste du. Marko hori gainditu eta euskal demokrazia eredu antolatatu behar dugu. Horretarako, erakunde sendo bat eratu beharra ikusten dugu, gaur egun dagoenarekin ez

“Marko juridiko-politikoak agortuta dago. Gainditu eta euskal demokrazia eredu antolatzeko erakunde sendo behar dugu”

baikinake helduko helburu horretara. Horrela, herritarren batasuna eraikitzea planteatzen dugu, abertzale eta ezkertiar sentitzen diren sektore, pertsona eta talde guztien arteko batasuna azken batean.

G. Nola ari da prozesua gauzatzen?


E. Maiatzean hasi zen, eta Bergarara etorri, ekainaren 7an lehenengo herri asanblada egin genuen. Han, prozesuaren nondik-norakoak eta helburuak azaldu ziren. Ondoren, ekainaren 17an Gasteizen, Batzar Nazionala egin zen, eta eztabaida izango zena mamitzen joan zen. Hau da, gidoi bat landu zen, eta horren arabera ponentzia batzuk idatzi, prozesuan eztabaidatu ahal izateko ponentziak, hain zuzen ere. Horrela, hainbat taldek euren ponentzia idatzi dute, eta urriaren 7an egin ziren publiko guztiak Lasarten.

Zortzi ponentzia daude, eta bi zatitan banatu dugu eztabaida: bata, eraikitzea nahi dugun herritarren batasunaren inguruan; bestea, erakunde berria antolatu ondoren etorriko da, erakundeak jarraituko duen ildo politikoa da-eta. Lehenengoan bost ponentzia daude: Arragoa, Piztu Euskal Herria, Bateginez, Aralar ildo eta Mailua eta Igitaiak taldeek egindakoak; bigarreanean, hiru: Bateginez, Aralar ildo eta Mailua eta Igitaiak egindakoak. Dagoeneko ponentziak aurkeztuta daude. Orain, ponentzien gaineko eztabaida fasean gaude, eta ondoren zati bakoitzeko ponentzia bat bozkatu da. Ponentzia bana aukeratu ostean, horren gaineko eztabaidari ekingo diogu, eta, azkenik, zuzendaritza politikoa erabakiko da eta erakunde berria martxan hasiko da.

Justo Garate Arriola zena omentzeko liburua aurkeztuko du udalak

Udalaren omenaldiak bat egiten du Justo Garateren jaiotzaren 100. urteurrenarekin. Ekitaldia 19:00etan izango da osoko bilkuren aretoan. Bergarako intelektualarren lana liburu batean bildu du Eusko Ikaskuntzak (EI), "Lankidetzan" bildumaren barruan, eta ekitaldian aurkeztuko da.

1900. urtean jaio zen Barrenkalean. Sendagile ospetsua, Medikuntzan doktore zen Madril eta La Platako unibertsitateetan. Ikerlari emankorra, hamar libururen egilea da eta 620tik gora lan, idazki eta azterlan argitaratu eman zituen. Bestalde, gerraurreko garaian Euskal Kulturaren suspertzailerik izan zen eta 1932. urtetik aurrera Elren Batzorde Iraunkorren kidea.



Aranburu eta Pereira aurkezpenean. Ondoan, liburua.

Argentinara erbesteratua, Buenos Airesen "Instituto Americano de Estudios Vascos" sortu zuen. Baina, urruti egon arren, ez zuen inoiz ahaztu Bergarako seme zela. 1994an hil zen Argentinako Mendoza hirian. Aurkezpen ekitaldian Victoriano Gallastegi alkatea,

Ana Toledo Gipuzkoako Eusko Ikaskuntzako kidea, Elias Amezaga liburuaren bultzatzaile eta autoreetako bat, eta Jose Luis de la Granja Elko bazkidea egongo dira. Libururen aurkezpenaren ondoren, "Airean" gitarra laukoteak kontzertua eskainiko du.

LANAREN BILDUMA

Liburuan Justo Garateren lan oparoa bildu du EIk udalarekin elkarlanean. Liburuaren inguruko argibideak eguaztenean eman zizuten Koldo Pereira kultura zinegotziak eta Xabier Aranburu udal museologoak.

Lau atal ditu: sarrera, Garateren lanaren azterketa, argazki bilduma eta omenaldia. Pereiraren arabera, liburua ez da omenaldi hutsa, "Goratarrea baino zerbait gehiago izatea nahi genuen. Arlo asko jorratu zituen persona izan zen eta horiek bildu eta bakoitzaren gaineko analisi sakona jaso nahi genuen". Bestalde, bere idatzen azterketa oso garrantzitsua dela gaineratu zuten, Garate ezagutzeko bide aproposa delako. Eta horixe dela, azken batean, liburuaren ekarpena.

Abian da kartoi biltzea zerbitzu berezia

Kartoiak biltzeko aparte zerbitzua da, eta denda eta enpresa txikiei zuzenduta dago. Debagoieneko Mankomunitateak jarri du abian, eta helburua da aipatutako erabiltzaileei kartoiak birziklatzeko aukera erraztea.

Zerbitzu berezi horren arabera, etxeko gainerako zaborra uzten den guneetan utzi beharko da kartoiak, eta ez edukiontzietan. Txukun eta behar bezala metatua utzi beharko da, eta etxeko zaborra biltzen den egun berberetan jasoko da. La-

runbat eta jaiegunetan ez da zerbitzurik izango. Bestalde, kartoiak arratsaldeko 7etan atera beharko da.

Debagoieneko Mankomunitateak, beste ohar batzuen artean, honakoa dio: kartoiak ez du izan behar plastiko, poliespan, meta-

lezko osagai edo beste gai arrarorik. Bestetik, ezin da kartoiak aipatutako ordua baino lehenago atera, ezta esandako ordua baino geroago ere; horrela izanez gero, batu barik geratuko litzateke hurrengo biltzea egunera arte.

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatuak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

Sukaldeko altzarien eta horma-armairuen fabrika

Super
Armeko

- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6.pabilioia.
ARRASATE. 943 71 25 08

Epaitegia euskalduntzeko plataformarekin bat udala

Udalak bat egin du Justizia Administrazioan euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzeko sortu berri den plataformaren oinarriekin. Bat-egitea joan zen asteleheneko osoko bilkuran onartu zen, EAJ, EA eta EH-ren aldeko botoekin; PSE-EE alderdia abstenitu egin zen. Ondorioz, udalak, AE-BE planaren espirituari jarraiki, epaitegiarekin dituen harremanak euskaraz izateko konpromisoa hartu du. Era berean, erabakiaren berri emango die Bergarako Epaitegiari eta Eusko Jaurlaritzako Justizia sailari.

Plataforma EHEk, AEK-k eta Jardun elkarteak sortu dute eta egunean egin zuten aurkezpen ofiziala.

ZAZPI OINARRI

Justizia Administrazioan hizkuntza normalizatzeko zazpi oinarri aldarrikatu dituzte. Bat: euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza ofiziala da; bi: Justizia Ad-



Udala eta epaitegiaren arteko harremanak euskaraz izango dira. ARTXIBOA

ministrazioa Euskal Herrian kokatutako eta herritarren eskubideak bermatuko dituen zerbitzu publikoa da; hiru: Justizia Administrazioak herritarrok hautaturiko hizkuntza bermatu behar du, eta eginbide guztiak hizkuntza horretan egitea ere bai; lau: itzulpena ez da bidea, izan ere, Justizia Administrazioak euskalduneko itzulpen sistema modu sistematikoan erabiltzea he-

rritarren berdintasun printzipioaren aurka doa; bost: funtzio publikorako euskara derrigorrezko hizkuntza izatea; sei: irtenbideak bermatzea; eta zazpi: herritarrek Justizia Administrazioan ditzuten hizkuntza eskubideak ezagutzera ematea.

Oinarriok betearazteko adostasuna lortu nahi du plataformak herriko beste talde batzuekin. Eta, esan bezala, udalak bat egin du.

Presoen familiendako diru laguntzak

Senitartekoren bat espetxean edota deportatua duten Bergarako familiei bisitetarako diru laguntzak emateko araudia onartu zuen udalak asteleheneko osoko bilkuran. PSE-EE alderdia abstenitu egin zen eta EAJ, EA eta EHk baieztok botoa eman zioten araudiari.

Neurri batean, behintzat, preso eta deportatuen familiei bidaiek eragiten dizkieten gastu handiak estali nahi ditu araudiak: hilean bidaia bakarra diruz lagunduko da (famiako kide bakarrarena), eta diru laguntza honakoa da: 18 pezeta kilometroko.

Joxe Lazkanok, Senideak taldeko ordezkari gisa, udalaren borondatea eskertu zuen osoko bilkuran. Hala ere, "borondate merke" samarra dela gaineratu zuen, familiek gastatzen duten kopuruarekin alderatuz.

EDEL TAPIZDENDA

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi, 2-behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37



Etxebizitza berriak Antzuola erdialdean

- Aparteko lekuan eta ingururik ederrenera begira
- Primerako materialekin jasoak

KORTA-ZAR Txokolategia

Pintxo eta ogitartekoen espezialitatea

Barrenkalea, 16 ☎ 943 76 20 62

ANDVZV

ANDUZU S.L.
Simon Arrieta, 1, 4-C
607 349 043



Garabi zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

Angiozarko Beheko Kalea konpondu egingo dute

Angiozar auzoko Beheko Kanean gasa, argia, ura eta argia, telefonoa eta telebistako hariak lur azpitik sartuko dituzte. Horretarako, kaleko lurra jaso eta sei hodi erabiliko dira. Lan hauen helburua aipatutako kable guztiak fatxadetatik kentzea da. Behin hodiak lur azpian sartuta, kalea bera konponduko da. Izan

ere, orain egoera kaskarrean dago. Lanok Beheko Kaleko urbanizazio lanen bigarren fasea dira. Lehenengoan kalea zabaldu egin zen.

Udalak dagoeneko lanak esleitzeko baldintza plegua onartu du eta konponketen adjudikazioa 14.948.624 pezetan egingo da lehiaketa bidez.

Baldintzak eta proiektua astelehenean onartu ziren osoko bilkuran; izan ere, lan horietarako ez zegoen diru izendapen nahikorik. Gauzak horrela, Jesus Mari Garitano EHko zinegotziak aurreikuspen egokiagoak egin behar direla gaineratu zuen, ia hamabost milioiko kopurua izanik, aurrekontuetan jasota ez zegoelako.

Arrantzan ari zela hil da gizonezko bat

Martitzenean, Jose Maria Lazkano, 69 urteko bergararra, istripuz hil zen Zestoan. Urola ibaian bi lagunekin batera arrantzan ari zela, uretara erori eta ito egin zen korrontearen indarrak eramanda. Hileta elizkizuna eguaztenean egin zen San Pedro parrokian. Bestalde, egun berean, herriko 16 urteko bi gazte (M.A.R. eta M.A.S.) arinki zauritu ziren Bergarako gasolindegian, gidatzen zuten ziklomotoreak auto baten kontra jota.

Bergarako Batzokiaren 20. urteurrena

Eguaztenean, hilaren 29an, Joseba Egibar eta Jon Jauregi izan ziren herriaren Batzokiaren 20. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, Udalbiltza eta bake prozesuari buruzko hitzaldia eman zuten. Domekan, hilak 3, 11:30ean, Monja Zaharretan aurten hildako alderdikideen aldeko meza egongo da. 13:00etan, Xabier Arzalluzen ekitaldi politikoa eta 14.30ean bazkaria izango da Batzokian.

Horrez gain, abenduaren 2tik 10era arte "Euskal abertzaletasunaren hasiera garaiko egunkariaren ikuspuntutik" erakusketa egongo da ikusgai Batzokian.



Udalak Aranerrekako eraso gaitzetsi du

Udaleko Gobernu Batzordeak gaitzetsu egin du eta publikoki salatu nahi izan du, erredakziora bidalitako ohar baten bidez, hilaren 15ean, Aranerrek kalean, ertzain baten autoari egindako eraso.

PERTSONA GUZTIEK HEZIKETA ESKUBIDEA DAUKATE

(GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALAREN 26.1 ARTIKULUA)


Miloi bat hildako Miloi bat arkatz

IRAK-I EGINDAKO BLOKEO GENOZIDAREN AURKAKO BILKETA KANPAINA

Bergarako herriari eta ikastetxeei dei egiten diegu kanpaina honetan parte har dezaten.

Kanpaina abenduaren 20ra arte izango da. Materiala lagatzeko: **Bergarako Udaletxean eta Kultura Etxean, Matxiategiko estankon, Peñalba eta Idatzi dendetan eta Toki Ederreko Garbil inprimategian.**

Informazioa: 943 34 04 04. Diruz laguntzeko Euskadiko Kutzako kontu-zenbakia: 3035 0776 93 0761047889.



**KOMITE
INTERNAZIONALISTAK**

SUSTATZAILEA: IRAKEN ENBARGOAREN
AURKAKO EUSKAL HERRIKO PLATAFORMA



Berrigara

432 zenbakia.
2000ko abenduaren 1a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetzea: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega,
Usua Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Antxon Agirre Sorondo,
Juan Martin Elexpuru.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga, Oñati).

Azalean, Luis Agirrerren tailerrean
ateratako argazkia. Berrigara.

Tirada: 5.400 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



atrebentzia ezpada

Behi zoruen arazua dala eta, lehengo moduan jarraitzen dozue okelia erosten, ala gutxiago?



Maria Luisa Zangitu

Orain arte, behintzat, berdintxu erosi dot. Hemen konfiantzazkua dagoela uste dot. Bertakua erosten dot beti.



Eider Arizabaleta

Berdin jaten jarraitzen dogu. Hemengo okelia jaten dogu, etxian konfiantzazkua pentsatzen jakulako.



Sabin Zelaia

Lehengo antzera jaten dogu. Baiña, nik ez dakit esaten nungua erosten dogun, nik ez dot erosten-eta.



Irene Madariaga

Ez dogu gutxiago jaten; lehengo moduan. Gaiñera hemengo okelan konfiantza daukagu eta labelekua erosten dogu.



Mari Kontxi Zangitu


Aspalditik jaten dogu gutxi, aspertuta garelako okeliakin. Baiña, ez dogu gutxiago erosten sortu dan arazoagaittik.



Rosario Larrañaga

Beti jan izan dogu geurian okela gutxi. Dana dala, lehengo moduan erosten jarraitzen dot.

tira biraka usoa mendikute



adituen esanetan

Pilula antikonzeptiboak

Gaur egun, gero eta emakume gehiagok aukeratzen ditu pilulak metodo antikonzeptibo bezala.

Pilula hauek bi osagai dituzte: estrogenoak eta progesteronak. Obulazioa etetea da euren eginbeharra. Nola bait esatearren, hipofisia engainatzean datza kontua. Izan ere, pilula hauen bitartez, glandula bati, hipofisari, hain zuzen ere, emakumea haurdun dagoela sinestarazten zaio, eta, era horretan, emakumeak ez du obulatzen. Eta ez obulatzean, ezingo da haurdun geratu.

Asko hitz egiten da pilula hauen bigarren mailako efektuez, eta, kasu gehienetan, gainera, efektu negatiboez. 35 urtetik gorako emakume erretzaileengan, eta tronboak izateko arriskua dutenengan, esaterako, arrisku hori areagotu egiten da. Bestalde, bularreko minbizia izateko arriskua ere areagotu egiten da, baina oso neurri txikian.

Baina, pilula hauek harteak oso onura garrantzitsuak ere baditu. Kontuan hartu behar da pilula hauek ez zirela sortu haurdunaldiak ekiditeko, nahiz eta gaur egun, kasu gehienetan, horretarako erretzetzen diren. Arazo hormonalak konpontzeko sortu ziren. Beraz, antisorgailu eraginkor eta fidagarriena izateaz gain (%99,7ko fidagarritasuna dute), hilerokoak erregulatzeko eta hi-



JOSE RAMON SERRANO


Ginekologoa

"Pilulek oso onura garrantzitsuak dituzte. Kontuan hartu behar da, arazo hormonalak konpontzeko asmatu zirela"

lerokoak sortu ohi duen mina ekiditeko metodo ezin hobea da.

Azkenaldian, berrikuntza garrantzitsuak eman dira. Aipatutako bigarren mailako efektuak murriztearren, gero eta estrogeno proportzio txikiagoa erabiltzen da. Duela hilabete gutxi gorabehera, 15 miligramo estrogeno besterik ez duen pilula merkaturatu da. Hemendik gutxira, berriz, estrogenorik gabeko pilulak merkaturatuko direla espero da. Helburua da bigarren mailako efektuen eragina murriztea.

Bestalde, inplante batzuk ere merkaturatuko ei dira. Azalaren azpialdean injekzio bat jarri eta hilabete batzuetan antisorgailu funtzioa beteko luke inplante horrek.



Pilulak antisorgailurik fidagarrienak dira. ARTXIBOA


bergarako errota

ERROTAZAR

Ingurukoek esan zigutenez, Ieremu horretan urak zeukan indar ahula zela eta, errota hau bertan behera utziren eta pixka bat beherago Ibarrola errota eraiki zen.

Desagertutako ERROTAZAR errota "Sagar-erreka"ko urak erabiltzen zituen.

KOKAPENA: Goimendi auzoan, Ibarrola erroatik 20 metroira (Soraluzeko bidetik joaten da bertara).



NAPARRENEKO ERROTA

Irin-errota zen eta Bergarako Goimendi auzoan zegoen. 1960an obra-hondakinek guztiz estali zuten errota.

Azken erroteria Joaquín Pabolo Aldai izan zen.

"Sagarerreka"ko urez baliatzen zen. Errota erreka horren eskuinaldean zegoen.

KOKAPENA: Soraluzeko Errotaberri erroatik 200 metroira errekan gora, garai bateko kanoi-fabrikaren parean.

Antxon Agirre Sorondo

Ikasleak Berrigaran

Joan zen astean **Aranzadi ikastolako seigarren mailako ikasleak** BERRIGARAN izan genituen bisitan. Ikastolan komunikabideak azterzen dihardute, eta nola lan egiten dugun ikustera etorri ziren. Eurak ere aldizkari bat egitekoak ei dira laster. Batek baino gehiagok esan zigun kazetari izan nahi duela. Beraz, etorkizunean ere izango dugu kazetaririk Bergaran.



Motorra zotz

arrañaga Optikak bere bezeroen artean **scooter moto bat** zozketatu du. **Belen Ugarteren** txartela izan zen irabazlea, **3.128 zenbakia** hain zuzen ere, azaroaren 17ko ONCEko zozketaren azken lau zenbakiak, hain justu. Argazkian, Belen Ugarte, irabazlea, **Jon Larrañaga** optikako arduradunaren eskutik bere saria jasotzen.

Gaztaina erreak Altzasun

Altzasu elkarteak udazkenean antolatutako ekitaldien barruan, **neska-mutikoendako txokotalate-jana eta gaztain erreak** egin ziren domekan. Argazkian ikusten den bezala, gaztetxoek gaztainak erretzen lagundu zuten eta lagunartean primeran pasa zuten. Domekako ospakizunarekin udazkenean antolatutako ekintzei amaiera eman zitzaion. Irailaren 23an **afari soziala** egin zen, eta joan zen urriaren 29an, berriz, **martxa erregulatua eta garbantu jana**.



Bolu
liburutegia

Enmarkazioak
Ispiluak neurrira
Zurezko artikuluak
Bergarako oleo eta
lumatoxoak

Koldo Eleizalde 1, behea
Tf. 943 76 70 60

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA

Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

LAKET

gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

MIZPILDI

OKINDEGIA

Matxiategi 1
943 76 72 73

Mizpildi 8
943 76 12 32

Maite Gomez urretxuarra da, baiña azkenengo 11 urtian, ezkondu zanetik, Bergaran bizi da. Danok ikusi dogu noizbait herriko kalietan gora eta behera gutunak eta paketiak banatzen. Izan be, postarixa da.

Maite Gomez



Postarixak beti deitzen dau bi bider?

Bi bider? Baita gehixagotan be; eta askotan, iriki be ez dotsue egitten.

Egunian zenbat gutun banatzen dozu gutxi gorabehera?

600 inguru, behintzat, bai, edo gehixago.

Eta zenbat kilometro ibiltzen zara?

Hori ja ez dakitt, baiña asko.

Bergarako kale guztixak ondo baiño hobeto ezagutuko dittuzu, ezta?

Bai, urte honetan danetan, Bergarako kale guztittan ibiltzia tokatu jat.

Zeuk idazten al dozu gutunik?

Bai, asko gustatzen jat gutunak bidaltzia; neuri be gustatzen jat-eta jasotzia.

Zer da zure lanian gutxien gustatzen jatzuna?

Ba, ez dakitt; asko gustatzen jat nere lana.

Eta gehixen?

Jendiarekin harremanetan egotia, nahiz eta danak ez diran oso atsegiñak izaten.

Zubirik badaukazu?

Bai, baiña egunak dauzkatelako hartzeko; bestela, ez dago zubirik *Correosen*.

Iñora juateko asmorik?

Ez; nere gizona etxetik etaratzia ez da erreza, oso etxezalia da.

Zeurenora juango ziñake, bada?

Palenciara, nere ahizpia han bizi da, eta bisita bat egittera.

Urtarorik gustokuena?

Udaberrixa; ez dau bero haundixegirik egitten, eta ezta hotz haundirik be.

Kolore bat?

Urdiña.

Gustuko usain bat?

Larrosena.

Janari bat?

Espagettixak.

Eta horri laguntzeko edari bat?

Ura, ez dot besterik edaten.

Iñoiz egin dotsuen oparirik polittena?

Lora sorta bat.

Zeuk egin dozun azkenengo oparixa?

Nere amamari, jertse bat.

Zelan definittuko ziñuke zeure burua?

Dicharachera eta *mari loca* samarra naiz.

Zure bikotiari zer ez zontsake iñoiz barkatuko?

Zintzotasun eza.

Nahikua diru eduki ezkerro, zer egingo ziñuke?

Bidaia on bat; bakarrik jua biharko nintzake, baiña gustora juango nintzake, Karibe aldera edo.

Gabonetarako loterixia erosi dozu?

Bai.

Ohitturarik badaukazu?

Bai, bai; urtero erosten dot.

Urtia bukatziar dago. Zer eskatuko zontsake datorren urtiari?

Orain arte bezala jarraitzia.

- L** Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- L** Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- L** Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63

Dixula

**BOKATAK
DAUZKAGU**

Barrenkalea 32
Tf. 943 76 44 95

Afariak ematen ditugu



Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

URRATS
TABERNA

**KOKTEL BEREZIAK
GAUETAN**

Ibargarai 4
943 76 52 92



☎ 943 76 20 61

Luis Agirre (ezkerrean) ikasle
garaian, ikaskide batekin.
Bartzelonan 1955ean.



Garai bateko jostunak

Arropa neurrira egiten zeneko kontuak

Duela 102 urte ireki zuen Jabier Mujikaren osaba zenak Mujika oihal denda, gaur egun dagoen toki berean, San Martin plazan. Hasiara hartan oihalak besterik ez zituzten saltzen. Hala ere, berehala ohartu zen besterik gabe oihalak saltzea baino negozio hobeia izango zela jostundegia jartzea. Baina, bera ez zen jostuna; beraz, bere anaia gaztea, Jabierren aita, bidali zuen lanbidea ikastera Elgoibarko jostundegi batera. Jabierrek aitarekin ikasi zuen lanbidea. Gero, 20 urterekin, Bartzelonara joan zen, Rocosa akademiara hau ere, Luis bezala. Bergarara bueltatu zenean bere aitarekin batera hasi zen dendan lanean, jostun bezala. "Orduan ez zegoen bestelako arroparik, ia denak

Lanbide asko dira urteekin erabat aldatu, eta baita desagertu ere, egin direnak. Horietako bat dugu jostunena. Garai batean, duela ehun bat urte, bost jostun zeuden Bergaran. Arropak neurrira egiten ziren garai hartan. Gaur egun ez da jostunik geratzen Bergaran. Luis Agirre eta Jabier Mujika jostunak ditugu, baina, denborarekin, euren negozioak garaira moldatu behar izan dituzte. Guk eurekin biekin hitz egin dugu.

neurrira egiten ziren; horregatik, negozioa oso ondo zihoan". Oihalak saltzen ere jarraitzen zuten arren, jostundegian oinarrizten zen, batik bat, negozioa.

Luis Agirrek geroago ekin zion bere negozioari, duela 53 urte, hain zuzen ere. Bere gurasoek arropa denda bat zuten Barrenkalen, gaur egun La Caixa dagoen tokian. Arropa artean hazi zen, beraz. Baina, negozio berarekin jarraitu barik, jostun ikasketak egitera joan zen Bartzelonara. Horrela gogoratzen du Luisek: "Hemezortzi urterekin Bartzelonako Rocosa akademiara joan nintzen, eta hiru hilabete egin nituen han. Lanbide hau segituan ikasten da, gaizki ikasitako guztia bezala". Ikasitakoekin Bergarara bueltatu, eta gaur egungo toki berean ireki zuten jostundegia.

MUJIKA UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

INFERNUKUA
TABERNA

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

JOSTUNAK TABERNETAN

Jabierrek kontatzen digunez, bere lehengusu batek eurekin lan egiten zuen. Herririk herri ibiltzen zen, autobusa edo trena hartuta, jendeari neurriak hartu eta trajeak saltzen. Martitzenetan Aretxabaleta eta Eskoriatzara joaten zen. Eguenetan Soralezera, eguakitzetan Zumarraga eta Legazpira, eta domeketan Arrasatera. "Bertako jendeak bazekien noiz joaten ginen, eta taberna batean egongo zela Bergarako jostuna. Beraz, bertara joaten ziren ordua hartzeko. Gero, etxez etxe joaten zen nire lehengusua neurriak hartu eta negozioa biribiltzera". Bitxia, benetan, orduko lan egiteko modua. Jabier eta bere aita, berriz, Bergarako tailerlean aritzen



**"Herririk herri
ibiltzen ginen
jendeari neurriak
hartu eta trajeak
saltzen"**

JABIER MUJIKA

ziren lanean, gaur egun Mujika jantzi denda duten tokian.

Jabierrek horrela gogoratzen ditu garai hartako bezeroak: "Arrasaten genukan negozio onena. Lan asko egiten genuen hango jendearentzat". Oñatikoak, berriz, horrela gogoratzen ditu: "Ordaintzeko orduan oso finak ziren, sekula ez zuten ezer zorretan lagatzen, baina oso zorrotzak ziren; beti eramaten zuten aukeratutako oihal zatitxo bat, berme moduan".

ORDAINTZEKO ORDUA

Luisek horrela kontatzen digu: "Ohitura zegoen jostunari norberak pentsatutakoan ordaintzeko; askotan urtea ere pasatzen zen". Honako pasarte ere kontatu digu Luisek: "Hilabeteak pasatu eta jostunari oraindik ez zion ordaindu gizon honek. Kalean behera doala, han ikusten du jostuna kalean gora. Berekin topo egiterakoan ordua galdetu dio, eta horrela erantzun dio jostunak: "Zer ordu den? Ordaintzeko ordua". Eta gizonaren erantzuna: "Erlojua aurreratuta daukazu zuk".

LANBIDEA GAINBEHERA

Denborarekin, lanbide guztietan gertatu den moduan, aldaketak eman ziren arropa arloan ere. "Gero eta gehiago arropak lantegi handietan egiten ziren, eta, merkeagoak zirenez, jendeak nahiago izaten zituen", azaltzen digu Jabier Mujikak. Berehala ikusi zuten negozioa aldatu beharra zegoela, moldatau beharra zegoela. Beraz, duela ho-

geiren bat urte hasi ziren jostun lanak alde batera lagatzen. Jabierrek eta Luisek nostalgiaz oroitzen dituzte garai haiek, eta gauzak nola aldatu diren aipatzen digute behin eta berriz. Luis Agirrek honakoa gaineratu digu: "Alde batetik, egia da egindako arropak erostea neurri egitea baino askoz merkeagoa zela eta horrek eragina izan zuela. Baina, bestetik, janzkera ere asko aldatu zen, eta guk trajeak bakarrik egiten genituen, trajeak eta alkandorak. Ezin genion aurre egin horrenbeste aldaketari".

Hala ere, urte askoan iraun dute; sekretua garaian garaiko beharretara egokitzen jakitea ei da, eta, halaxe, euren negozioiek bizirik diraute.<




**"Janzkera asko
aldatzen hasi zen,
eta ezin genien
aldaketa haiei
aurre egin"**

LUIS AGIRRE

**POL-POL
Taberna**

943 76 07 78

**Bergarako
Udala**

Bergarako Udala,
Udal liburutegirako
erdi mailako teknikari
bat kontratatzea doa aldi
baterako lehiaketa-oposizio bidez:

Lehiakideen baldintzak:
- Erdi mailako tituluaren jabe izatea.
- Euskeraren 3. Hizkuntza
Eskakizunari dagokien jakite maila
izatea.

Instantziak aurkezteko epea:
Abenduaren 5eko eguadiako 13:30.

**Oinarriak Udaletxeko
Idazkaritzako bulegoetan.**

Bergaran, 2000ko azaroaren 22an.


**GURIA
Taberna**

Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34

**PINTXO eta BOKADILLOAK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92



Ur-bide
I T U R G I N T Z A

Zubieta, 28-behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

Shotokan taldeko jubenilak saritu dituzte Gipuzkoako txapelketan

Bergarako Shotokan taldeko jubenilek (14-15 urtekoak) emaitza bikainak lortu zituzten Urnietan jokatutako Gipuzkoako promozio txapelketan. Gerriko zuritik marroira bitarteko karatekek parte hartu zuten eta 20 bat talde izan ziren lehian. Rakel Blanco bergararrak bai kata eta bai kumitetan lehen postua eskuratu zuen, finalean Miren Laskurain bere taldekideari nagusitu ondoren. Aitor Jasok kumitetan 2. postua lortu zuen eta Jon Benitez, berriz, bigarrena izan zen katetan.

Gaur egun, 57 lagun ari dira Bergarako Shotokan taldean eta astelehenetan,



Argazkian, Josean Iñarra bere ikasleetako batzurekin.

eguaiztenetan eta eguakitzen entrenatzen dira Miguel Altuna institutuko aretoan. Josean Iñarra Gipuzkoako hautatzailea izendatu zuten

maiatzean eta infantil mailatik senior bitarteko karatekin ari da lanean. Bergarako Shotokan taldea orain dela lau urte sortu zen eta

orduan 10 lagun ari ziren taldean. Ordutik kirolari kopuruak gora egin du eta, esan bezala, gaur egun ia 60 lagun ari dira taldean, 5 urtetik 37 urtera bitartekoak.

Bestalde, datorren abenduaren 16an Euskadiko Karate txapelketa jokatuko da Bergarako Kiroldegian. Kadete eta junior mailako (15-17 urte bitartekoak) karatekak izango dira bertan eta oraindik Iñarrak ez daki nortzuk ordezkatzuko duten Bergarako taldea. Berritasun gisa, aipatutako txapelketa arau berriekin jokatuko da. Asmoa da hurrengo Olinpiadetan karatea olinpikoa izatea.

Txirrindularizaleen afaria Elorregin

Urtero moduan, txirrindulari denboraldiari amaiera emateko, herriko lagun koadrila batek afaria egin zuen eguakitzean Elorregiko Alkartasuna elkartearen bertan Haimar Zubeldia eta Jon Odriozola txirrindulariak eta Felix Ugalde Herri Irratik kolaboratzailea izan ziren. Giro onean afaldu ondoren, denboraldian gertatutakoak komentatzeko aukera izan zuten.



karteldegia

FUTBOLA

Bergara-Zalla

Hirugarren maila. Zapatua, 15:30. Agorrosin

Bergara-Aurera Ondarroa

Infantilek. Zapatua, 10:00. Ipintza

Bergara-Mariño

Ohorezko kadeteak. Domeka, 11:30. Ipintza

SASKIBALOA

Bergara-Askatuak.

Kadete mutilak. Zapatua, 12:15. Kiroldegia

Bergara-Irun

Senior mutilak. Zapatua, 16:00. Kiroldegia

Bergara-Tolosa

Jub. mutilak. Domeka, 12:15. M. Lagundia

ESKUBALOA

Bergara-Egia

Kadete mutilak. Zapatua, 17:30. Kiroldegia

Bergara-Lasalle Legazpia

Jub. mutilak. Zapatua, 19:00. Kiroldegia

PILOTA

HERRI MAILAKO TXAPELKETA eta GIPUZKOAKO KLUBEN ARTEKO LIGA
Gaur, eguakitza, 19:15ean Pilotalekuan

Usoa Pub



☎ 943 76 38 57

Irala 1



Tartufo Jabetzea

Eguneko menua daukagu.

Asteburuetan, afari berezia **1.500** pezetan!

San Juan auzoa, Elgetako bidea, Bergara. Tf. 943 76 35 51.

**OILAGORRA
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA

ROBERTO ZURRO/ Korrikalaria

“Abuztuan hasten naiz maratoia gertatzen”

Roberto Zurro (36 urte) lehen bergararra izan genuen domekan Donostian jokatutako maratoian. 2 ordu, 42 minutu eta 12 segundoko denbora egin zuen. Zurrok dagoneko lau aldiz bukatu du Donostiako maratoia.

G. Zer moduz domekan?

E. Behobia-Donostia lasterke-ta gertatzeko Santi Perezekin, Diego Garcariaren entrenatzaile-arekin, ibili nintzen eta egindako entrenamenduak kontuan izanik, banekien 2:42-2:45 bitarteko marka egin nezakeela maratoian. Behobia oso ondo prestatu nuen, baina ezin izan nuen nire marka hobetu. Domekan, ostera, ez nuen maratoian dudana hobetu (2:38), baina oso sentsazio onak izan

nituen karreran eta ondo bukatu nuen.

G. Zein distantzian aritzen zara erosoen?

E. Niri maratoia gustatzen zait, karrera aurreko giroa ere oso berezia delako. Zure indarren kontrako karrera da eta entrenamenduek markatzen dizute zer nolako marka egin dezakezun. Indarrak neurtu behar dira eta buruarekin korrika egin. Ni abuztuan hasten naiz maratoia serio gertatzen, eta hemendik urtarriera bitartean atsedean hartzen dut.

G. Berandu hasi zinen korrika.

E. Gaztetan saskibaloian jokatzen nuen eta gero, erretzeari uzteko asmoz, igeriketarekin aspertu ondoren, bizikleta probatu nuen eta ezkondutakoanedo hasi nintzen korrika, azken batean, bizikletak baino denbora gutxiago kentzen dizu-eta.

G. Elikadura-eta asko zaintzen duzu?

E. Ez pentsa. Urtean zehar etxean zaintzeko ohitura daukagu baina denetik jaten dut. Abuztutik hona bost bat kilo kendu ditut. Orain 70 kilo dauzkat.



emaitzak

FUTBOLA

Sodupe 1; Bergara 1
Hirugarren maila
Bergara 4; Amaikak Bat 1
2. erregionala
Elgoibar 6; Bergara 1
Neskek
Bergara 3; Santo Tomas Lizeoa 1
Ohorezko jubenilak
Bergara 3; Idiazabal 3
Lehen mailako jubenilak
Bergara 1; Aurrera Ondarroa 5
Ohorezko kadeteak
Urki 3; Bergara 2
Bigarren mailako kadeteak
Mutriku 2; Bergara 3
Infantilak

ESKUBALOIA

Bergara 25; Mutriku 23
Senior mutilak
Arrasate 22; Bergara 22
Kadete mutilak
Urola 21; Bergara 23
Jubenil mutilak

SASKIBALOIA

Larramendi 68; Bolsos 58
Senior mutilak
Intxaurren 60; Lacor Bergara 77
Jubenil mutilak
Lasalle 60; Bergara 30
Kadete mutilak

PILOTA

Bergara 22; Azkoitia 9
Lehen mailako seniorrak
Bergara 5; Azkoitia 22
Lehen mailako jubenilak
Añora 10; Bergara 22
Jubenilak banaka
Antzuolak 22; Bergara 15
Bigarren mailako kadeteak

Bergara ez agutzen 2001

• 14-18 urte bitartean izanez gero, anima hadi!

• 10-15 laguneko taldeak osatu behar dira

- - Galderak
- Proba grafikoak
- Jokoak

• 2001eko otsailaren 2an hasiko da, eta ostiralero, arratsaldeko 7,30etan Kartzela Zaharrean jokatuko da.

• Irabazleek **astebukaera bat pasatuko dute aterpetxe batean**

natur kirolak praktikatu.

• Izen ematea JARDUNen:

kartzela zaharra, Bergara.

Telefonoa: 943 76 36 61/76 08 19.

Azken eguna, abenduaren 19a izango da.



Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Begarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Labegaraietako futbito txapelketa

EMAITZAK

A MULTZOA

Buya-Torrekua	3-0
Fac-Amoskibar	3-0
Pagomendi-Bildurbarek	3-0
Bar Ugarte-Bar Canalejas	6-1
Irubide jatetxea-Errotagain	0-3

B MULTZOA

Bayer-Manitou	1-1
Vacalouras-Suntsitzaileak	5-2
Pinturas Bergara-Ortzi	4-7
Kanpazar-Amilotx	5-3
Tom Cat Argandolas-Aterpe	9-12

C MULTZOA

Mongatxurak-A Ze Flaxa	2-3
Latex-Komando Piperrak	2-2
Mo(ko)lotov-Txipiron	1-3
Ezinleike-Guadalest	2-7
Patxaran Team-Shaktale	1-6

PARTIDUAK

ZAPATUAN BARRUAN

9:30: Apa Oxemai-Eri	Manitou
10:30: Sunsitzaileak-Manitou	Eri

DOMEKAN BARRUAN

9:30: Errotagain-Bar Ugarte	Amilotx
10:30: Amilotx-Tom Cat Argandolas	Aterpe
11:30: Aterpe-Kanpazar Harrob	Ortzi
12:30: Ortzi-Agirrebeña	Kanpazar
16:00: Amoskibar-Buya	Vacalouras
17:00: Vacalouras-Etengabe	Fac
18:00: Fac-Bildurbarek	A Ze Flaxa
19:00: A Ze Flaxa-Artusamak	K. Piperrak
20:00: K. Piperrak-Patxaran Team	Artusamak

DOMEKAN KANPOAN

10:30: Shaktale-Txipiron	Guadalest
11:30: Guadalest-Latex	Txipiron

ARGI!

Zigor mordoia

Fac eta Bildurbarek taldeei euren partidua galdutzat eman zaizkie eta, era berean, hiru puntu kendu dizkiete ez aurkezteagatik. Hurrengo batean kanporatuak izango dira. Bayer eta Manitou taldeek ere hiru puntu gutxiago dituzte fitxa guztiak denboraz ez aurkezteagatik. Azkenik, Joseba Onsono eta Gorka Madinabeitiak partidua bana-zigorra jaso dute.

Jardunaldirik ez

Abenduaren 9ko eta 10eko astebukaeran ez da futbito txapelketako jardunaldirik izango.

Fitxak aurkeztu ez dituztenak

Errotagain, Torrekua, Txipiron eta Vacalouras taldeei euren partidua galdutzat eman zaizkie (3-0), fitxa guztiak ez aurkezteagatik.

mahoneroak



JULIO MENDIARTATZ
BKEko zuzendaritzakoa

Partidu arraroa izan zen Bergarak Soduperen aurka jokatu zuena domekan. Lehen zatian Bergarak gol aukera nabarmenak izan zituen markagailuan aurreratzeko: hasieran Josetxoren jaurtiketa batek zutoinean jo zuen, 25. minutuan Aritzek penalti jaurtiketa huts egin zuen...

Penaltiko jokaldiaren ondoren, eurak jokalaria bat gutxiagorekin geratu ziren, baina ez genuen jakin izan nagusitasun hori aprobetxatzen. Sodupe hasierako hamaika jokalariekin jarraitu izan balu, beharbada hiru puntuak ekarriko genituzke. Aukera paregabea galdu genuen.

Epaileak beraien jokalaria bati txartel gorria atera zion eta bederatzi jokalarirekin gola egin ziguten falta jaurtiketa baten ondorioz. Handik gutxira, jokaldi bikain bat burutuz, Koldo Erostarbek banakoa egin zuen eta jarraian 8 jokalarirekin geratu ziren bizkaitarrak. Horrelakoetan ezin da huts egin, baina beraiek atzera egin eta emaitzari eutsi zioten.

A Ze Flaxa, Ortzi, Kanpazar Harrobia

A Ze Flaxak 3 eta 2 irabazi zion Mongatxurak liderrari; B multzoan Ortzi taldeak ere sendo jarraitzen du, eta Kanpazarrek garaipena lortu zuen.



GORA eta BEHERA



SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	24	9
2. Pagomendi	22	9
3. Errotagain	19	9
4. Bar Canalejas	19	9
5. Bildurbarek Opel Lam	16	9
6. Amoskibar	12	9
7. Fac	10	9
8. Apa Oxemai	7	8
9. Buya	7	9
10. Eri	6	8
11. Irubide jatetxea	4	9
12. Torrekua	3	9

B multzoa

	P	J
1. Aterpe	27	9
2. Ortzi	19	8
3. Kanpazar	18	9
4. Tom Cat Argandolas	16	8
5. Pinturas Bergara	13	9
6. Amilotx	12	8
7. Manitou	10	8
8. Vacalouras	4	8
9. Sunsitzaileak	4	8
10. Bayer	3	9
11. Etengabe	1	7
12. Agirrebeña jatetxea	0	7

C multzoa

	P	J
1. Mongatxurak	21	8
2. A Ze Flaxa	18	8
3. Artusamak	16	7
4. Komando Piperrak	13	8
5. Guadalest	12	8
6. Shaktale	12	8
7. Mo(ko)lotov	10	8
8. Ezinleike	9	7
9. Patxaran Team	7	8
10. Txipiron	3	6
11. Latex	-1	8

Informazio hau babesle hauei esker:

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza
2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

Otsein Saria

Otseinek eta Berrigarak emandako sariaren sailkapen orokorra:

Aritz Arabiourrutia.....7 puntu
Ander Berraondo.....5 puntu
Jokin Mendiartatz.....5 puntu

Etzeko partidua bakarrik hartzen dira kontuan.

Kalitatezko kazetaritza inoiz baino eskurago



Froga ezazu etxean
15 egunez doan

Abenduaren 6tik aurrera Euskaldunon Egunkaria berritua ez zaizu ezer kostako.

Ikusgarriagoa delako, informazioaren gako guztiak
lehen begi-kolpean emango dizkizulako eta, nahi izanez gero,
DOAN jaso ahal izango duzulako.

Bai, 15 egunez **DOAN** jaso nahi dut Euskaldunon Egunkaria etxean.

IZEN

ABIZENA

HELBIDEA

HERRIA

K.P.

TELEFONOA

e-mail

Bete eta bidali postaz: Euskaldunon Egunkaria, Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain,
e-mailaz: ezagutu@egunkaria.com edo telefono honetara deituz: 943 30 02 22.

g e r o e t a g e h i a g o

10
Egunkaria
urte



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

bonofotoa

Non dago ezkerreko iturria?
Eta zein auzotan eskumakoa?

galde debalde

1. Noiz egin zen Justo Garate Eusko Ikaskuntzaren Batzorde Iraunkorreko kide?
A- 1932an
B- 1934an
C- 1939an

2. Zein da Bergarako Shotokan karate taldeko entrenatzailea?
A- Mikel Arakistain
B- Joxean Iñarra
C- Jon Maiztegi

3. Zein taldek eskainiko du kontzertua zapatuan udaletxean?
A- Amelingo biolinistak
B- Catalin Bucataru's trio
C- Duo Ad Libitum



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du **BERRIGARAK** asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria **Maialen Hernandez**entzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Maialeni! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:

Bonofotoa: **San Juan**

Galde Debalde: **1-A, 2-C, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:

Izen-deiturak:

Telefonoa:

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

Campoviejo
beltza / gorria, golztiarra, 3/4
459 PTA!
Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Musika klasikoa eskainiko da zapatuan eta domekan osoko bilkura aretoan

Duo Ad Libitum bikotea batetik, eta Pedro Jose Rodriguez pianista bestetik

Duo Ad Libitum taldeak eta Pedro Jose Rodriguez pianistak kontzertu bana eskainiko dute asteburu honetan udal-tereko osoko bilkura aretoan. Biolin eta piano bikoteak bihar, zapatua, eskainiko du kontzertua, 19:30ean. Pedro Jose Rodriguezek domekan, ordu berean.



Patxi Aizpiri pianista eta Catalin Bucataru biolinista dira Duo Ad Libitum.

Duo Ad Libitum 1997. urtean sortu zen, Catalin Bucataru biolinista eta Patxi Aizpiri pianistaren eskutik. Espainia eta Europako hainbat hiritan eskaini dituzte kontzertuak, eta 1998an Ciudad de Manresa lehiaketan Ganbara-Musikaren lehen saria jaso zuten. Bakarleri lanetan, berriz, kontzertu ugari eskaini dituzte Europan: Frantzia, Italia, Suitza eta Espainian, esaterako.

Catalin Bucataruk nazio-

arteko hainbat biolin lehiaketa irabazi ditu, Cintarea Romanei, Murtziako Orkestra Gazteak eta Nicanor Zabaleta, beste batzuen artean. Donostiako Musika Kontserbatorioaren Orkestrako eta Mena maisuak zuzendutako Aita Donostia Ganbara-Orkestrako kontzertina ere izan da. Gaur

egun, lehen biolin tutta da Euskadiko Orkestra Sinfonikoan.

Patxi Aizpirik, berriz, hainbat sari jaso ditu piano lehiaketetan, Donostiako Musika Hamabostaldiaren lau ekitaldietan parte hartu du, eta bakarleri lana egin du Musika Kultura Elkarte- an. Gaur egun, Donostiako

Orfeoiko pianista da eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin batera egiten du lan.

Zapatuan osoko bilkura aretoan eskainiko duten kontzertuak bi atal izango ditu: lehenengoan, Mozart eta Beethoven konpositoreen lanak eskainiko dituzte; bigarrenan, Manuel de Falla eta Blochenak.

PEDRO JOSE RODRIGUEZ

Pianista laguntzaile izateko espezializatu ondoren, Iruñeko Pablo Sarasate kontserbatorioan dihardu lanean. Bi disko konpaktu ere grabatu ditu Aita Donostia eta Guridiren musikarekin.

Domekan bi ataleko emanaldia eskainiko du: lehenengoan, Bach, Fernando Remacha eta Tomas Garbizuren lanak eskainiko ditu. Bigarrenan, Mendelsson eta Shumanenak.

Bergara Ezagutzen lehiaketarako izen-ematea zabalik

Jardunek antolatzen duen Bergara Ezagutzen lehiaketarako izena emateko epea zabalik dago dagoeneko. 14 eta 18 urte bitarteko edonork parte har dezake. Lehiaketan taldeka

parte hartuko da, eta taldeak 10-15 pertsonaz osatu beharko dira.

Izena emango da Jardun elkarteak Kartzela Zaharrean duen egoitzan, edo ondorengo telefonoetan: 943

76 36 61 / 943 76 08 19. Azken eguna abenduaren 19a.

Eredua betikoa izango da: lehenengo atalean talde bakoitzari hamabost galdera egingo zaizkio; bigarrenan proba grafikoa izango da.

Bi atalei aurre egiteko, taldeak honela egon behar du osatuta: bi aurrelari, bi atzelari, hiru-zortzi laguntzaile, eta kanpoko jokoaz arduratuko diren hiru pertsona.

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35

ARANE KRISTALDEGIA

Erakustoki berria

Artekalea, 18-behea.
Tel. 943 76 74 09
670 483 903

ZUBIAURRE

aroztegia

- Aulki eta mahaien erakusketa eta salmenta.
- Sarrerarako eta barrurako atea.
- Neurria egindako horma-armairuak.
- Tarima eta parketak.
- Zurezko leihoak.
- Era guztietako arotz-lanak.

Zubiaurre, 2. Bergara.
Tf. 943 76 15 14 / 943 76 35 73



Beti Ona futbol taldea, 1983

Mutil koadrila honek Beti-Ona futbol taldea osatzen zuen 1980ko hamarkadaren hasieran. Garai batean herri futbol txapelketak Seminarioan jokatzen ziren, baina Ipintzako futbol zelaia berriztu zenetik bertan jokatu dira gehienak. Udaberri-uda partean hainbat mailatako txapelketak jokatzen ziren eta han jardundako gazte askori Bergara taldearekin fitxatze-

ko aukera eskaintzen zitzairen. Jasotako informazioaren arabera, goiko argazkian agertzen direnak 1983ko infantil mailako txapel-dunak izan genituen. Beraien entrenatzailea ezkerretik ageri den Jose Luis Gomez zen. Gaur egun 30-31 urte bitartean izango dituzte gehienek. Honako hauek dira, finalaren atarian ateratako argazkian, ezkerretik eskumara ikus ditzakezuen jokalaririk:

Zutik: Jose Luis Gomez, Fernan Kalboe-txeaga, Roman Zenitagoia, Martin Balzategi, Joseba Azkargorta, German Lopez, Jokin Etxaniz eta Pako Vallejos.

Makurtuta: Aitor Garai, Asier Azkarate, Felix Jimenez, Jose Ignacio Luceño eta Vidal Kareaga.

Argazkia: Roman Larrañaga

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldearen erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



Zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

deco-tex ZANGUITU alfonbrak

Alfonbrak
Edredoiaik
Funda nordikoak
Kortinak
Toailak
Izarak



**Alfonbrak
neurrira!**

Herri lagunak 4.
Tf. 943 76 08 69

STUART LITTLE



**Etxean bezain gustura,
inon ez dituzu ikusiko.**



DVD VHS

IRALA
VIDEOMATIC Plus Bideoak

Kruz Gallastegi 7. Telefonoa: 943 76 21 81. Faxa: 943 76 73 33. E-maila: video_iralaa@jet.es




Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert 



Mitarite 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR 

50 urte

gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik